


Etxean praktikatzeko

Ziur denok eguneroko errutina bat garatu dugula, konfinamendu hau eramangarriagoa izan dadin. Eguneroko zereginen zerrenda horiek elkarrekin jarriko bagenitu, ziurrenik errepikatuko lirateke irakurketa, telesailak, puzzleak, ariketa fisikoak, bideo-jokoak, sukaldea ... Etxeke jardueren zerrenda horri gehitzeko beste entretenimendu bat proposatuko dizuet. Adin eta genero guztientzat zuzenduta, tablero eta fitxak besterik ez dira behar. Batzuentzat kirola, besterentzat artea... Momentuz har dezagun denborapasatzat.

Bai, Xakeaz hitz egiten ari naiz. Etxekeekin praktika dezakezue, edo bestela sarean hainbat plataforma eskuragai daude lagunekin edota ezezagunekin jokatzeko. Partidak jolasteaz gain, beste ariketa motak praktika dezakezue, problemak ebaztea hain zuzen ere. Horra hor adibide bat.

Karjakin, Sergey - Shirov, Alexei
4th ACP World Rapid Cup, Odessa UKR
2010.05.28



White to win

Esteka batzuk utziko dizkizuet ariketak egiteko, besteekin partidak jolasteko... Eta etxetik irtetzeko gai garenean, laudio xake taldera hurbildu nahi bazarete ikasitakoa praktikan jartzera, ongi etorriak izango zarete.

<https://lichess.org/>

<https://chesspuzzle.net/>

<https://sites.google.com/site/cursillolaudioxakea/>